

2017.05.03 - 2017.06.25

**laura
ruiz
sáenz**

+

**nora
aurrekoetxea
etxebarria**

www.lauraruizsaenz.com

www.noraurrekoetxea.com

HURRENGO ERAKUSKETA

barriek 2017. BFAren sorkuntza artistikorako beka
Andrew Gangoiti uztailek 27 - irailak 3

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.eus

Orduetgia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



A STRONG NEED FOR SECURITY AND A SENSE OF BELONGING

2017ko maiatzaren 3tik – ekainaren 25ra



Transferentziari buruz

Norenak dira trauma historikoak? Une hori, arinkeriak inplikazio eta proportzio ezezagunez beteriko trauma moduan kalifikatzen dena, aho batez konpartitzen al da? Edo trauma horren tokiko, erregioko eta testuinguruaren arabera adierazpena jaraunspen politikoko eta kulturalerako lege eta arauetara lotuta dago? Artistek bidaiatu egiten dute. Artistek modernitate osoan bidaiatu dute, nahiz eta bidaiak horien baldintzak nabarmen aldatu. Inspirazioaren bila bidaiatzea bano gehiago, artistek gaur egun lanagatik bidaiatzen dute. Modernitateko “behaketaren” eta paisaia kolonialen mentalitatearen arteko bezala, pribilegioagatik bidaiatu baino, egunerokotasun azeleratuak (norbera ez litzateke ausartuko esatera begirada eta jarrera kolonialistek irauten dutenik), gero eta gehiago, artisten bidaiak globalizazio kapitalistaren hausturara iristeko bide moduan inkompatibleratuak dira. Europar Batasunak lan-mugikortasunaren mugak lausotu ditu eta eutsiezina bezain gradualki iraingarria den kosmopolitanismoa hedatzen du, eta hori egin du herritarren eskubideak euren lan mugikorraren indarraren arabera zabaltzearen ardurarik gabe (izan ere, ez da horri buruz nahita arduratu). Eraitza moduan une hauetan Europar Batasunak gaur egun lana demokraziarekin konektatzeko egiturazko defizita pairatzen du.

"Artisten eta kulturaren profesionalen mugikortasuna" azpimarratu arren Europar Batasunak bere mugetan zehar mugitzen diren artistak desagituratze prozesuaren lekuko bihurtzera kondenatu ditu, bere "atzerritartasunaren" arazoak ere ebatzi gabe¹. Erakunde artistikoei buruzko eztabaida asko (eta, nola ez, artea erakunde moduan hartzeari buruzkoak) eta artelan eta era-

¹Ikusi artisten eta kulturaren profesionalen Europar Batasunaren web orria.
http://ec.europa.eu/culture/policy/cultural-creative-industries/mobility_en. 2017ko martxoaren 31n kontsultatu zen.

kusketa asko, era inplizituan edo esplizituan, kanpo-efektu iraunkor horretan oinarrituta daude. Artisten mugikortasuna laguntzen duten egiturak, egoitzak barne, beti dira "-rekin ohitzea" eta, modan dagoen adierazpen bat erabiltzearen, "-rengandik ikastea"² arazoaren tarteko irtenbideak dira. Laura Ruiz Sáenzek eta Nora Aurrekoetxeak kausa horrekiko irtenbide edo, hori ez ezik, helburu bikoitza, menderakaitza eskaintzen dute *A STRONG NEED FOR SECURITY AND A SENSE OF BELONGING* obran. "-rengandik ikasi" erako lekukotza eman beharrean, obrak (edo, hobeto esanda, obren konposizioak) transferentzia-saioaren ahalegina egiten du. Transferentziarekiko erreferentziak, itzulpenarekikoak baino gehiago, bi artistek lortu nahi duten narratibotasunean aipagarriak diren ezaugarri batzuk adierazi beharko lituzke. "Itzulpena" positibotasunez sorrarazita dago: postmodernotasunak erreferentzia asko utzi dizkio jaraunspenean 'itzulpen kulturalari', 2017an kulturen arteko ulermenezko agintza hutsen eta inoiz heldu ez zen *pax cultura-ren* itxura dutenak. 'Itzulpena, zailtasunak gorabehera, positiboan deklinatzen da eta hori, era desegokian, optimista da neoliberalismoa den etsai (*hostis*) interkulturala kontuan hartzen badugu; ondorio hori aspaldikoa da eta egunero espermentatzen da Iparralde Globalean (Hegoalde Globalak esperientzia kontsumatuagoa dauka), eta Iparralde Global horretan Europar Batasun hautsia edo abiadura desberdinetakoa, Mexiko eta Estatu Batuen arteko harresiaren promesa eta elkarrekin izatearen etenik gabeko desagertzea aurki ditzakegu. "Transferentzia" ez dago ilusioz kargatuta. Era negatiboan deklinatzen da eta terapiari lotuta dago. Oro har okerreko unean eta tokian gure aburuz "ezabatuta" egon beharko luketen gauzak (bereziki sentimenduen) bat-batean sartzea deskribatzen du. Transferentzian nagusi den ezaugarria traumarekiko lotura eta eutsiezina izatea da. Psikoanalista batek esango lukeen moduan, uste dut hemen gauden guztiok — irakurleek eta lekukoez — jakin dakigula zertaz ari garen.

A STRONG NEED FOR SECURITY AND A SENSE OF BELONGING termino espazialak dituen transferentzia da, beti ere kontuan hartuta Marxek aurreikusi zuen "denborak espazioa suntsitzea" batez ere finantzen eta horien transakzioen abiaduraren markoagatik, markorako eta markoan³. Finantzen gotorlekutik lurraldean bizitako — eta, agian "exekutatu" (ausaz esanda) — bizitzak begiratuta, espazioa da non, solidaritatea, politikoa baino etikoagoa den Ezkerrari gehien gustatzen zaion elikadura izanda, egunero egiaztatzen den tokia, begiztako "krisi" baten denborazkotasunean. Baina, zehatzagoak izateko, krisi horren errefrakzioaz edo biderkatzeaz mintzatu behar dugu. Har dezagun azken termino hori: kontuan hartuta erakusketak honen transferentziak Atenasko irudiak biltzen eta frogatzen dituela Bilbon, argi egon beharko litzateke bi hiri errealtate desberdin eta paraleloan gertatzen diren bi trauma desberdin ditugula. Hori gorabehera, *A STRONG NEED FOR SECURITY AND A SENSE OF BELONGING*ek esan nahi duena edo (hanpadura azpimarratzeko) frogatzen duena da "paralelo" izena ez dela egokia, David Harveyk ere iradokitzen duenaren ildotik, kapitalak beti egiten duelako bere krisia kanporatzeko ahalegina (eta, ia beti, lortu egiten du), eta beste arazo bat bezala eta, batez ere, inoren arazo moduan, aurkezten ditu⁴. Inolako dudarik gabe 2010etik Atenas ekonomia eskasia artifizialaren eraginean kasuaren aparteko azterlan bihurtu da, kasu honetan eskasia globalak — katastrofe siriarraren bidez ere eraiki dena — bere presio geldiezina aplikatzen duenean ekonomia europar azeleratu batean gertatu dena. Atenasen bertan behera utzita dagoen eta pintura altxatuta duen eraikin neoklasikoa, gainbeheraren pertsonifikazioa dena, ikur bihurtzen da testuinguru honetan, aldi berean bere fatxada lizuna estaltzen duen zeru koloreko oihal urdinaren mugimendu leun eta geldiaren maila kontzeptualen gorai-patzen den bitartean. Azelerazio horren egia, *A STRONG NEED FOR SECURITY AND A SENSE*

*OF BELONGING*en bildu den materialean erakusten den bezala, maila existentzialean erregistratuta dago. Maila hori zatikien bidez eskualda daiteke, batzuetan marxistek "abstrakzio erreala" deitzen duten horietarikoa dena eta eragin zehatzak dituen abstrakzio bat dena. Artista hauentzat "abstrakzio erreala" galdera hauen bezalakoetan jasota dago: "nongoak gara?" edo "hemengoa naiz?" eta, "nola gauza daiteke 'hemengo' hori?"

Galdera horiek ez daude, pentsa daitekeen bezala, antsietate hutsez beteta. "Segurtasun beharizan handi" honi buruzko euren aukera aurkezterakoan, artistek, Arístides Antonas aipatzea hautatu zuten "...ezegonkortasunaren suak eta etorkizun oparoko orainaren ukatzeak argia eginda", agian euren marko emozional propioa zein den adierazteko, kontinentearen bi ertzetan nagusitzen den trauma nazionalean eta ekonomikoan pentsatzerakoan. Bere barruan "ukatzearen" aukera duen esaldia aukeratzeak hautesleria zabalagoarengana jotzen dutela esan nahi du eta ez derrigorrez orainarekin konektatuta dagoenarengana. Har dezagun kontuan "oraina" dela bere ukatze propioaren promesa eta itxaropena mantentzen dituen. Ez da erraza amaiera bat hasiera bat bezala aurkeztea. Asko dira, gure orainaldi honetan, orainaldi erkide honetan, gustukoa izan zein ez izan, gure garaietan zerbait ezin dela jaio esaten diguten ahotsak⁵. Nola egin dezakegu aurrera hemendik abiatuta "iraganaren nostalgia", iragana identitate bezala, hain ezagunean erori gabe? Zer erakuts daiteke amets honen bidez prozesuan soberan ditugunetariko amesgaiztoa eragin gabe? Nola legeza daiteke hemen entseatzen den transferentzia, praxiari baino gehiago solidaritatearen diskurtsoari mugatu gabe?

Alderdi hauek ez dira erretorikoak eta, dena dela, ezin dira erantzun gaur egungo deskonexio egoera honetan, eta gauza bera gertatzen da batzen gaituena baino bereizten gaituen guztia mugatzearen arazoari behin- behineko irtenbidearekin. Baldintza horietan transferentzia eskubide bihurtzen da, eta baita gure iraganaren/iraganen historia bizia eratzen duten akats ugarien esplorazio ere. Eta, bai, beste behin ere gure traumak historia bizidunaren moduan antzesten jarraitu ahal izango dugu. Baina, derrigorrez erantzun behar den galdera kritikoa hau da: zein neurritan egin behar dugu hori nahitaez eta zein neurrian erabakitzen dugu egitea? Bi aukera horiek osagarriak dira eta era dialektikoan irakurri beharko lirateke, norberari "hautespenaren" eta "erabakimen askearen" ideologia liberalak baimentzen dizkionak irakodita baino ez. Bilboren eta Atenasen historiek xahutu egiten dituzte ilusio horiek eta, ordea, frogatu egiten dituzte eskuragarri dagoenaren gainean eraikitzen diren iterazio konpultsiboak eta ez ordea hiri horietako biztanleek eurentzat eta beste guztientzat eskuragarri egotea gurako lukeenaren gainean. Transferentziak, beste zentzu horretan —iterazio konpultsiboaren zentzua— jarraitu egingo du. Norberak eman behar du maila bizi behar duena eta bizi behar duenarekin burutuko duen borrokan.

Angela Dimitrakaki
Atenas, 2017ko apirilak 10.

² 'Learning from Athens' (Atenasengandik ikasten) 14. Documenta-ren izenburua da, 2017ko apirila - uztaila.

³ Azalpen moduan, ikusi Michael Lewis, *Flashboys: A Wall Street Revolt*, W.W. Norton & Co, New York 2014. Era berean. Ikusi Karl Marx, *Grundrisse: Foundations of the Critique of Political Economy*, Penguin, New York 1993 [1857], 538-39 or.

⁴ Ikusi David Harvey, *The Limits to Capital*, Verso, London 2007 [1982] eta David Harvey, *The Enigma of Capitalism, and the Crises of Capitalism*, Oxford University Press, Oxford 2010.

⁵ Azalpen moduan, ikusi Zygmunt Bauman, "Times of Interregnum", *Ethics and Global Politics* 5/1(2012), 49-56 or.